

Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO) 1997. urtean eratu eta sustatu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Herri honetako musika-tresna jole gazteei orkestra-mailako prestakuntza eskaintzeko xedearekin sortu zen orkestra. Helburu horrekin Eusko Jaurlaritzak eta BBK, KUTXA eta VITAL KUTXA finantza-erakundeetako Gizarte-ekintzek fundazioa sortu zuten; Eusko Jaurlaritza Fundatzaile da eta hiru kutzak, berriz, Babesle Atxikiak. Euskal Herrian jaio edo bizi diren gazteek osatzen dute orkestra, nagusiki. EGOk urteko bi sasotan metatzen du bere lana, udako eta neguko oporraldietan, hain zuzen. Euskal geografiako hainbat lekutan egiten du lan hori. Epe horietan EGOk kideek nazioarteko ospea duten irakasleekin lan egiteko aukera izaten dute, eta orkestra-mailan eta ganbera-musikan trebatzen dira. Lan-epe horien amaieran EGOk kontzertu-sorta antolatzen du, irakasle gonbidatuekin eta egungo Zuzendari artistikoa den Juan Jose Oconekin egindako lana erakusteko. EGO 1997ko abuztuaren 3an aritu zen jendaurrean lehenengoz. Vitoria-Gasteizko Principal Antzokian eskainitako emanaldi hura Juan Jose Menak gidatu zuen, orkestrak izan duen lehen Zuzendari titular eta artistikoak, alegia. Ondoren, kritikari espezializatuek goretzako kontzertu-sorta arrakastatsua eskuian zuen Euskal Herrian zehar. 1998. urtean, Juan Jose Mena zuzendari zela, orkestra Segovian aritu zen (Segoviako Uda Musikalaren barruan, Gazteen Musika Klasikoko Jaialdiaren inaugurazioan). EXPO'98 ekitaldia zela-eta Lisboako Culturgest aretoan ere emanaldia eskuian zuen.

1999. urtean, Enrique Ugarteren zuzendaritzapean, EGOk udako hainbat jaialditan hartu zuen parte, Deban eta Zarautzen, esaterako, eta Donostiako Musika Hamabostaldiaren inaugurazio-kontzertuan ere bai. Jaialdi berean Mikel Laboarekin eta Donostiako Orfeoiaekin batera kontzertua eskaini zuen. Bertan grabatu zuten Gernika Zuzenean 2 diskoa (Elkar). 2000. urtean EGO Segoviara itzuli zen (Segoviako Uda Musikalaren barruan Gazteen Musika Klasikoko Jaialdiaren itxierara). Era berean, ohiko kontzertu-bira egin zuen Euskal Herrian zehar, oraingoan egungo EGOn Zuzendari titular eta artistikoa den Juan Jose Oconen zuzendaritzapean. 2001. urtean EGOk, Donostiako Orfeoiaekin batera, Tomas Garbizuren Joan XXIII.ari Meza aurkeztu zuen Musika Hamabostaldian. 2003. urtean Charles Chaplinen The Kid filmari musika jarri zion zuzeneko emanaldian. 2004. urtean EGOk Carlos Etxeberriaren Antso Hndia Errazu kantata aurkeztu zuen eta Txinako Errepublikako hiri nagusietan zehar kontzertu-bira egin zuen.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta EGOn sorreran parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiak hasierako helburuak betetzen ari direlakoan daude: orkestra-prestakuntza egokia ahalbideratzea, musikari gazteon garapen artistikoa eta pertsonala sustatzeko egitura sendoa sortzea eta mundu profesionalera igarotzeko maila artistiko handiko zubia izatea.